

KROAZIA SAMINA

Juan Luis ZABALA

Jugoslavia ohiko gerraren biktimei lagundu nahirik, Tolosa eta inguruetan laguntza humanitarioko materiala bildu eta Splitera (Kroazia) eraman zuten Nairobitarra autobus ezagunaren arduradunek hil honen hasieran. Bidaia horretan parte hartu ondoren, EGUNKARIAn egingo du bidaiaren kronika Juan Luis Zabalak gaur hasi eta abenduaren 26ra bitartean.

LEHEN ATALA: Gerraren atarirako bidean

“Gerra honi buruz esan beharrekoak orain dela urtebete esan zituzten komunikabideek; orain esan daitekeen guztiak morboa elikatzeko baino ez du balio”. Hori argudiatu zidan Spliten aurkitu genuen SOS Balkaneseko bolondres batek, eskatu nion elkarrizketa pertsonalari uko egitean. Bere izena aipatzeko baimenik ere ez zigun eman bolondres hark bere inguruan bildu ginen kazetarioi, nahiz eta kontu interesgarri asko kontatu.

Zer pentsatua eman zigun idazki honetan aurrerantzean X izenez aipatuko dudan bolondresaren argudioak. Jakina, ez da zaila Xren argudioari erantzuna ematea. Informazioa beharrezkoa da oraindik eta izango da gerora ere, era guztietakoa gainera. Baina Xk ez zuen esan zuena pentsatu gabe eta batere motiborik gabe ere esan. Bere ikuspuntuarekin bat ez etorri arren, abisu hari jaramon egin beharra dagoela iruditzen zait, argi ibili beharra dagoela, alegia, apal eta

zintzo jokatu beharra, gerrako tiro hotsa gertutik entzun eta sentitu duen kazetari-heroi ausartarena egiten ibili gabe. Gerra ez da jolasa.

Egunez egun kontatuko ditut, egunkari moduan eta ahalik eta zintzo eta egokien, bidaia honetan ikusi, entzun, bizi eta sentitutakoak, inoiz Xk nire lana irakurriko balu haserreberdik aurkituko ez lukeelako esperantzan.



Berrogei ordu inguru egin zituen Nairobitarrek Tolosatik Rijekarako bidean. J.L.Z.

Abenduak 4, larunbata

Bidaiaren abiapuntu zen Tolosako udaletxe zaharraren inguruan jende mordoska zegoela -bidaiarion senide, ahaide eta adiskideak, udaltzainak, ETBko kamerak...-, Santa Maria parrokiako kanpaiak gaueko bederatzia jotzen ari ziren une berean jarri du martxan Nairobotarra Angel Ortizek, gainerako hamar bidaiariak barruan ginela, geure trasteekin eta aurreko egunetan bildutako laguntza humanitarioko material guztiarekin: ia 800 kilo eskolako material, 4.000 kilo inguru janari, 100 kilo inguru manta eta garbiketarako produktuetan, 200 kilo

Inguruan jende mordoska zuela, Tolosako Santa Maria parrokiako kanpaiak gaueko bederatzia jotzen ari ziren une berean jarri du martxan Nairobotarra Angel Ortizek.

botika. Horretaz gain, 800.000 pezeta inguru (33.333 libera) ere bildu dituzte Tolosa eta inguruetan. Guztia, SOS Balkanesen bidez errefuxiatu bosniarrei laguntza emateko.

Nairobotarraren arduradun diren Angel Ortiz eta Josu Iztuetarekin batera,

Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolan lan egiten duen Bixente Elordui irakasle tolosarra, SOS Balkaneseko bi bolondres (Fernando Castaño eta Txus Ruiz de Apodaca, bilbotarra lehena eta orduñarra bigarrena) eta sei kazetari gaude autobusean: Juan Manuel Sotillos 'El Diario Vasco' egunkariko 'Tolosaldea-ko' kazetaria, Herri Irratiko 'Musu truk' saioan lan egiten duen Carolina Sainz de Bikuña, Tolosako 'Galtzaundi' herri aldizkariko erredaktore den Jon Ander Ubeda eta lan hau sinatzen duena.

Azpiko maleteroan eta goiko sarean ezezik autobus barruan ere badira kaxak baina, dena den, autobus barruko espazioa ondo antolatuta dagoenez, ez dugu arazorik izan nor bere lekua aurkitzeko.

Bidaiari batzuek elkar ezagutzen zuten lehendik baina gehienontzako guztiz berriak dira inguruan ditugun aurpegiak. Hala ere, hasieratik egon da giro ona gure artean, Angelen umore bizi eta zorrotzari esker neurri batean. Euskaldunak gara gehientsuenak baina ez denak. Euskaraz eta gaztekeraz mintzatzen gara, arazorik gabe. Gaueko 23.30ak inguruan, leiho ondoan tolestutako

mahaiak zabaldu, haien inguruan eseri, etxetik ekarritako janariak atera eta armonia ederrean afaldu dugu. Elkarren berri izateko aukera ona.

Bi bolondresak, Fernando eta Txusek, beren asmoen berri eman digute afalostean. Fernando ez da inoiz izan orain artean Kroazian baina Kurdistanen bi hilabete egin zituen, Turkiako Gobernuak kurduen aurka arma kimikoak erabili zituenean, kaltetuei laguntza ematen. Fisikan lizentziatua da eta, gaztelera, ingelesa eta frantsesaz gain, arabiera pixka bat ere badaki. Hamabi egun baino ez dira SOS Balkanesera jo eta bolondres izateko prest agertu zenetik eta berehala eman zioten destinoa: Spliteko bulegoan logista lanean, koordinazioaren arduradun, alegia. Fernando bezalako baten premia zuten nonbait. "Ahal izan balute faxez bidaliko nindutela uste dut", komentatu digu irribarrez. Ez daki zer aurkituko duen Spliten baina apirila arte bertan geratzeko asmoa du.

Txus lehen ere egona da Spliten, SOS Balkanesekin lanean zenbait hilabetetan. Oraingo honetan, erakunde honek babesten duen TTTS izeneko errefuxiatu-eremuan negutegi bat eraikitzea izango da bere eginbeharra. Urtarrilerako negutegia

amaitu eta Bilbora itzultzeko asmoa du.

Afaldu ondoren, lotarako ordua, bolanteari helduta jarraitu behar izan duen Angelentzat eta aldameneari lagun izan duen Txusentzat izan ezik; goizeko 3.00etan Josu eta Bixentek eman diete erreleboa.

Abenduak 5, igandea

Lasaia izan da gaurko eguna. Autobusa martxan zela, irakurtzen ordu asko pasatu ditugu gehienok: Juan Goytisoloren 'Cuaderno de Sarajevo', Manuel Leguinecheren 'Yugoslavia kaputt', SOS Balkanesen txostena... Atzo, mina baten eztagandaren ondorioz, Espainiako kasko urdinen kapitain bat hil zela ere jakin dugu, norbaitek etxera deitu duenean berri hori eman baitiote.

Arratsaldeko 15.30ak inguruan, Monaco ikusteko aukera paregabea eskaintzen zuen restop batean geratu gara bazkaltzera. Oraindik ez dugu autobuseko sukaldea erabili beharrik izan, aski izan da oraingoz etxetik ekarritakoekin. Restop horretatik kasinoa, jauregia, itsasoa eta etxeorraz zantarrak ikusi ditugu. Argazkiak ateratzeko aukera polita.

Gauean garbantzoak berotu ditu eltze handian Angelek. Gustora jan ditugu, bero-beroak. Lotaratu baino lehen, Jon Ander eta Beak gitarra jo dute eta

kantuan aritu gara: 'Amaren bularra', 'Hegoak ebaki banizkio'...

Joan eta joan, arazorik gabe iritsi gara gauean Veneziatik 50 kilometro ingurura dagoen restop batera. Bihar arratsaldeko 18.00etan Rijekatik irtengo den ferrya hartzea dugu helburu eta horretarako presa handirik ez dugunez Angel eta Josuk autobusa gelditu eta lasai lo egitea erabaki dute, Nairobotarrari zein beren gorputzei atseden emanaz.

Ezjakintasun gozoa

Abenduaren 4ean Tolosako udaletxe zaharraren ataritik irten ginenean, bagenekien Nairobotarra barruan ginen hamaika lagunok gure eguneroko bizimodu arrunta alde batera utzi eta, egun gutxi batzuetan baino ez bazen ere, gerraren infernura hurbilduko ginela, gerraren infernua inoiz baino hurbilago sentitzera iritsiko ginela; hori bai, bertan kixkaltzeko arrisku handirik gabe, badaezpada ere.

Ezagutzen genituen, gutxi gora-behera behintzat, Europan Espainiakoaz geroztik sortutako lehendabiziko gerra zibil anker horri zegozkion datuak, Juan Goytisolok Cuaderno de Sarajevo' liburuan aipatuak: 140.000 pertsona inguru

hilik, 151.000 zaurituak, 1.835.000 bere nazioko beste tokiren batera edo bere naziotik kanpora erbesteratuak, 156.000 kontzentrazio eremuetan preso sartuak, 12.100 elbarrituak (1.280 haur horien artean), 38.000 emakume bortxatuak...

Latzak izan arren, datuak datu ziren, besterik ez. Eta Kroazia, Bosnia eta Serbia Europa izan arren, Euskal Herritik urrun daude. Batzuk izanak ziren inguru haietan, baina beste garai batean, Dalmaziako kostaldea turismoari begira bizi zenean, Jugoslavian bosniar, kroaziar eta serbiarrak bakean bizi zirenean, itxuraz behintzat.

Gutako inork ez zekien benetan zer den gerra bat, gerraren ondorio zuzenak geure larruan bizi eta sentitu gabeak ginen guztiok. Gure gurasoen oroitzapenak genituen beharbada erreferentzia hurbilena: gosea, miseria, oinazea, izan daitekeen gauzarik txarrena, latza benetan...

Gerra zer den jakin gabe gindoazen Splitera Nairobotarran sartuta. Gero, Kroaziara iritsi ondoren, gerra benetan bizirik dagoen tokietara sartzerik izan ez dugunez, itzuli ere gerra zer den benetan jakin gabe itzuli gara Euskal Herrira, eta hobe horrela gainera. Luzaro iraungo ahal du gure ezjakintasun gozoak!

A benduaren 4ean Tolosatik abiatu eta Splitera (Kroazia) jo zuen Nairobi-tarra autobusak, Jugoslavia ohiko gerraren biktimenezako laguntza humanitarioko materialez zamatuta. Igangeko kapituluan Tolosatik venezia inguruetarainoko bidearen berri izan genuen, eta baita autobus barruan zihoazen bidaikide guztiak ezagutzeko aukera ere.

BIGARREN ATALA: Splitekin topo

Abenduak 6, astelehena

Italiatik Esloveniara eta Esloveniatik Kroaziara, bi muga pasatu ditugu gaur oso denbora gutxian, goizetik arratsalderako tarte horretan. Ordu eta laurden izan gaituzte zain lehenengoan esloveniarrek eta beste hainbeste bigarrean kroaziarrek.

Berria denez —1991n eskuratu zuen independentzia Esloveniak— Eslovenia eta Kroazia arteko muga lau txabola prefabrikatu baino ez daude. Oso muga pobrea da, benetakoa izateko itxurarik ere ez duena. Kroaziako mugako poliziek barre egin omen diete Josu eta Fernandori, paperak erakutsi eta tramiteak egiten zituzten bitartean. Gainerako bidaikideok gure pasaportek seilatzera joan garenean ere irribarre ironiko eta nardagarria ikusi dugu funtzionario kroaziarren ezpainetan. “Izan ere, nahiko absurdua da egoera”, egin du gogoeta Josuk, filosofikoki: “Bosniarrak erasotzen eta suntsitzen ari da auren armada, eta gu, bitartean bosniarrei laguntza ematera goaz be-

ren mugatik pasatuta. Horrelakoxea da gerra, erabat ilogikoa”.

Kroazian sartu ostean aldapa beheara bihurrian mantso eraman du Angelek Nairobiarra Rijekako kai handiraino. Saltxitxoia, txorizoa, azeitunak eta ogia erosi berria mahai tolesgarrian ezarri ditugu, autobusaren ondoan. Aldame-neko untzi batean Emir Kusturicaren filme batetik atereak ziruditen kantak zituzten altu-altu jarrita eta haiek entzunez egin dugu bazkari-legea.

Rijekatik Spliterako bidea ez dago itxia baina ibilgailu gehienek ferryan egiten dute tarte hori, Zadar inguruan oraindik ere borrokak daudelako, serviarrak kroaziarrei Krajina kendu nahian dabilta.

Ferrya irten aurretik, Rijekako kaleetan zehar turistarena egiteko tarte labur bat izan dugu. Arratsaldeko 18.00etan abiatu da ferrya Spliterantz, beheko sotoan Nairobiarra gordea zuela. Hirian bezala, untzian ere soldadu kroaziar gazte ugari ikusi dugu. Ez da eroso hauen egoera. Bidaikide batzuk

hiru soldadurekin mintzatu dira gauean. Etsita daudela esan diete soldaduek, agindutakoa bete beste erremediorik ez dutela eta berdin zaiela zer gertatzen den, ez zaiela axola gerrak zenbat iraungo duen. Splitera doaz oraingoz. Gero batzuk etxera itzuliko dira eta beste batzuk beharbada Mostarrera igorriko dituzte, frontera, bosniarrekin borrokatzera, bosniarrak suntsitzera.

Abenduak 7, asteartea

SOS Balkaneseko bi bolondres genituen gure zain gaur goizean —goizeko 6.00etan— ferrya Spliteko kaira iritsi denean: Eli eta Angel. Autobusa ferryaren sototik atera ondoren, ohi bezala, autobus atarian mahaia zabaldu eta bertan gosaldu dugu. Autobusean ekarri dugun materialaren banaketa ez da uste genuen bezain erraza izango, Eli eta Angelek adierazi digutenez. Konplikazioak ugariak dira: errefuxiatuentzako zenbait eremutan ardurdun edo sukaldari kroaziar bat dago guztien buru, eta janaria horietako baten eskue-

tan utziz gero ia-ia ziurtzat jo beharko dugu janariaren zati handi bat ardurdunak berarentzako hartuko duela; beste eremu batzuetan, berriz, nahiz eta premia larriegirik ez izan, jatekorik batere ez dutela esan dezakete errefuxiatuek... Argi ibili beharra dago, beraz, janaria nori eman erabaki baino lehen. Hasiak gara hemengo egoera pixka-pixka bat ezagutzen.

Arratsaldean, euren babespean dagoen TTTS errefuxiatu eremuaren ingurura eraman gaituzte SOS Balkanesekoek. 7 kilometro ingurura dago eremu hau, Stobrec herritik getu. TTTS izeneko garraio zentro handi baten ertzean kokatua dago, zentro hori eraiki zuten langileentzat prestatutako barra-koietan. Oso metro karratu gutxitan



TTTSko bi haur errefuxiatu Nairobitarraren ate hondoan

140 familia osatzen dituzten 560 lagun inguru bizi dira TTTSko eremuan, emakumeak, gaztetxoak eta haurrak gehienak. Gela batzuetan lau lagun bizi dira eta beste batzuetan, berriz, hamaika. Emakumeetako batzuk gerran alar-gunduak dira, beste batzuek frontean borrokan dute senarra eta ez dute aspaldi jaso haren berririk, gerra bizian sartuta dauden tokietatik telefonoz deitzea oso zaila eta garestia baita.

Eremuaren alokairua Kroaziako Gobernuak ordaintzen dio barrakoen jabe den enpresari. Horretaz gain, egunero-ko gosari eta bazkaria eta hiru egunetako afaria ere ziurtatzen dizkie TTTSko bizilagunei Kroaziako Gobernuak. Eremuan dagoen putzu septikoa ez dabil behar bezala, eta 12 kamioik ekartzen dute ura egunero eremura; horietatik 8 Kroaziako Gobernuak ordaintzen ditu eta gainerakoak SOS Balkanesek. Bolondresak adierazi digutenez, "premiarik larrienak asetuta daude eremu honetan", nahiz eta, jakina, bertakoen bizimodua batere eroso ez izan. Afaririk ez duten egunetarako ere zerbait izaten dute normalean; egun horietan *pita* deitzen duten janari bosniar tipikoa prestatu ohi dute maiz, tortilaren edota pizzaren antzekoa, irinez egina eta patata, espinaka edo haragiz betea.

Nolanahi ere, errefuxiatu hauen premiarik larrienei erantzuna ematen dien

arren, ezin da esan Kroaziako Gobernuaren meritua handia denik, ezta herrik eman ere, Kroazian bizi diren errefuxiatuei laguntzeko diru kopuru handiak jasotzen baititu Kroaziako Gobernuak Europatik. Diru horren portzentaia txiki bat baino ez da errefuxiatuen eskuetara iristen dena eta gainerako guztia Kroaziako Armadarentzat da, SOS Balkanesekoek adierazi digutenez.

Eremuari bisita laburra egin ondoren —ez genuen bat-batean denak batera sartu eta bertako bizilagunak asaldatzerik nahi—, autobuseko materiala entregatzeko lehen pausoa gauzatu da arratsaldean: Bixente irakasleak eta beste zenbait bidaikidek TTTSko haur bosniarrak joaten diren eskola bisitatu dute, eta bertan utzi Tolosa eta inguruetan bildutako eskolako materiala, 200 kilo inguru guztira.

Bixenteren ikasleek bidalitako koadernoek elementu berezia zuten: koadernoaren lehen orrialdean, koadernoaren igorri duen ikasle zizurkildarraren agurra aurkitu dute haur bosniarrek, bertso, poema edo marrazki bidez egina. Agur horren bidez, hango eta hemengo haurren arteko lotura indartzeko esperantza agertu du Bixentek.

Errefuxiatu eremuan lo egiterik ez dugunez —jabe kroaziarrek ez dute horretarako baimenik ematen eta, bestalde, tokirik ere apenas dagoen—, ere-

mutik 200 metrotara utzi dugu Nairobi-
tarra, eta autobusa izango da, honai-
noko bidaian bezalaxe, gure etxea
Spliten gauden bitartean.

**Oso metro karratu gutxitan 140 fa-
milia osatzen dituzten 560 lagun in-
guru bizi dira TTTSko errefuxiatu
eremuan, emakumeak, gaztetxoak
eta haurrak gehienak.**

Haurrak eskolara

Lav hotelean kokatutako eskola es-
tratorritoriala Split inguruan dauden zortzi
eskola estratorritorialetako bat da, eta
420 ikasle bosniar joaten dira egunero
bertara, beren ikasketak egitera; horie-
tako 40 inguru SOS Balkanesez ba-
besten duen TTTS errefuxiatu ere-
muan bizi diren haurrak dira. Ere-
mutik Lav hoteleraino lauzpabost kilometro
daudenez, autobus bat joaten zaie bila
TTTS ingurura. Guk bizitokitizat ge-
nuen Nairobitarraren aurretik pasatzen
ere behin baino gehiagotan ikusi geni-
tuen, bizkarrean motxila txikia zutela
eskolarako autobusa hartzeko tokirako
bidean.

Eskola estratorritorialak Kroazian erre-
fuxiatutako haur bosniarrentzako egi-
nak dira. Kroaziako eskoletara joateko
eskubidea duten arren, haur bosniarrei
ez diete notarik jartzen kroaziarren es-
koletan, eta horregatik dute eskola es-
tratorritorial hauen premia.

Bosniak Kroazian duen enbaxadaren
ekimenez sortu dira eskola estratorri-
tial hauek, baina Egiptoko IGASA el-
karte arabiarrak ere bultzada handia
eman die, hilerok-hilerok irakasleko 50
markoko (40.000 pezeta edo 1.650 li-
bera inguru) dirulaguntza emanaz.
Dena den, eskola hauetako irakasleek
IGASaren laguntzarik gabe lan egin
ahal izatea nahiko lukete, irakaskun-
tzaren independentzia ziurtatzeko.

Bosnia-Herzegovinako musulmanek
ez dute Asia eta Afrikakoek bizi ohi du-
ten indarrez bizi ohi erlijioa. IGASA el-
karte arabiarrak, egungo egoeraz ba-
liatuta, erlijioa indartu nahi du erre-
fuxiatu bosniarren artean eta eskola es-
tratorritorialeki ematen dieten laguntza
xede horri lotuta dago, SOS Balkane-
seko bolondresak azaldu digutenez
behintzat. Horregatik dute irakasleek
IGASaren laguntzarekiko susmo gaiz-
toa.

Guk ezagutu genituen hurrek jateko
ezezik eskolara joateko aukera ere ba-
dute behintzat. Ez da surte makala,
beste batzuenarekin alderatuz gero.
Neska-mutil argi eta biziak dira TTTS-
koak. Gure argazki kamera aurrean
irribarrea ezpainetan zutela jartzen zi-
ren, eta gero argazki bat ateratzen uz-
teko eskatzen ziguten, "foto, foto" esa-
nez. Zorionez, oraindik ere ez dira eu-
ren etorkizunaz pentsatzeko gauza.

Nairobiarra autobusak abenduaren hasieran Kroaziara egindako bidaiaren kronika irakurtzen ari gara egunegun. Atzokoan, Nairobitarako bidaiariak Splitera nola iritsi ziren ikusi genuen, eta nola egun berean, abenduaren 7an, Tolosatik eramandako eskola-materiala banatu zuten TTTsko errefuxiatu-eremuko haurrek ikasten duten eskola estraterritorialean.

HIRUGARREN ATALA: Gerraren Atariko Biltegi Handia



Errefuxiatu eremu bateko bizilagunak Tolosatik bidalitako janaria jasotzen.

J.L.Z.

tona irinez zamatutako trailerra eta arropa, botika eta beste-lako materialez betetako 8 furgoneta eta Land Rover bat dira Espainiatik ekarri dituztenak.

Goizean Manuel Esparza etorri zaigu Nairobitarara. Nekazaritza biologikoa lantzen duen Tafallako El Viveroko langilea da Manuel, Txalaparta argitaletxearen arduradun

Abenduak 8, asteazkena

Jon Ander, Josu eta X Espainiako kasiko urdinekin izan dira bart gauean, eta haiekin batera Madrildik etorritako konboi bateko kideak ezagutu zituzten. Nuevas Juventudesek (PPko gazte-riak) antolatua da konboia, eta 'Ayuda para Bosnia-Herzegovina' du izena. 25

den Jose Mariren anaia eta Nuevas Juventudesekoen Komboiko irinez zamatutako trailerra ekarri duen Jesus Mari txoferraren lehengusua. Jesus Marik gonbitea eginik, berarekin etortzea erabaki zuen Manuelek, nahiz eta NJekoekin zerikusirik ez izan ez berak ez bere lehengusuak.

Manuelek azaldu digunez, laguntza humanitarioa Spliteraino ekarri duten arren, konboiaren arduradunek ez dakite orain noren eskuetan utzi. Kroaziarren eskuetan utziz gero, kroaziarrek beren erara antolatuko dute material guztia eta nekez iritsiko zaie ezer benetako premia duten bosniarrei. Laguntza humanitario guztia SOS Balkanesekeen eskuetan uzteko proposatu dietenean, berriz, ezetz esan omen dute, erakunde horretan "abertzaleak" daudela edo antzeko zerbait argudiatuz... Harritzekoa! Hemen ere horrelakoak entzun behar, alajaina! Irina behintzat Kroaziako Gurutze Gorriaren eskuetan utzi beharko dute, kamioia ezin baita geldirik egon denbora gehiago.

NJekoen kasua ez da bakarra. Eguerdian, Sevillatik 60 tona material ekarri dituen unti batean etorritako gizon andaluziar batekin egin dugu topo. Andaluziarrak kontatu digunez, API izeneko elkarte batek antolatutako espedizio hau arazorik gabe iritsi da Splitera, baina kargamendua non utzi ideiarik gabe daude, eta seguru asko 60 tona horiek ere kroaziarren eskuetan geratu beharko dute azkenean.

Gure kasua ez da madrildarrena edo sevillarrena bezain larria. Nairobotarra-
ren kargamendua ez da, azken finean,

hain handia, eta SOS Balkanesekeen esanetara gaude kargamendu hori non utzi erabakitzeko. Eskolako materiala atzo banatu genuen. Botikak Metkovic-era eraman eta Médicos del Mundo erakundeko kideen eskuetan utziko ditugu, janaria deskargatu eta gero, autobusak kostaldeko errepideetan gehiegi sufritu ez dezan. Janaria banatzeko, berriz, Spliteko Solin auzoan dagoen errefuxiatu eremu bat zuten begiz joa SOS Balkanesekoek gu iritsi aurretik.

Gure txikian ere, arazoak izan ditugu, ordea, guk ere. Solingo eremuan 50 lagun bizi dira barrakoi ilun samar batzuetan. Urtarrila artean janaririk ez zutela izango esan zioten SOS Balkanesekeo Angeli. Baina gaur janari paketeak hartu eta SOSekeen Nisan Patrolean bertara joan garenean, eremuko itzultzaileak oraingoz eremu honetan janaria nahikoa dagoela esan die, eta kargamenduarekin itzuli gara berriro Nairobotarra aparkatuta dugun lekura, hau da, TTTS ingurura.

Orain arte aipatutakoez gain, gauza gehiago ere ikasi dugu gaur laguntza humanitarioko materialari buruz. SOS Balkanesekeo bolondres den Toñi neska andaluziarrak azaldu digunez, iristen den laguntza humanitarioko material asko eta asko alfer-alferrikakoa da,

ez da ezertarako aprobetxatzen. Esate baterako, musulmanak diren bosniarrek ez dute ez oliba-oliorik ez txerri-rik jaten, eta tanpoirik ere ez dute erabiltzen. Baina okerrena zera omen da, errefuxiatuek ezertarako behar ez dituzten arropa zaharkituak ailegatzen direla maiz, armarioak garbitu eta so-bratzen den guztia bidal-

tzen duela jende askok laguntza humanitario gisa, gerra honetako biktimak guk Euskal Herrian dugun bizi-mailaren antzeko batera ohituta daudela

ahazturik. “Jertse manga solte bat ere iritsi zitzaigun. Zer arraio egin behar genuen harekin?”, komentatu digu Toñik. “Manga itzultzea merezi dute, ea konturatzen diren”.

Laguntza humanitarioa sailkatzeak ere bere arazoak sortzen ditu. Horregatik, laguntzako materiala ahalik eta era egokienean jasotzea nahiko lukete SOS Balkanesekoek, eta laguntza bidali behar duena eurekin kontaktuan izan dadila, xehetasun guztiak ondo zaintzeko.

Ez dira, ordea, orain arte aipatutakoak laguntza humanitarioak dituen arazorik larrienak. Ikusi eta ikasi dugunez, Split laguntza humanitarioz betetako biltegi handia da gaur egun, baina laguntza

hori benetako premia dutenengana irits dadin, bi oztopo nagusi daude: materialik gehiena kroaziarren eskuetan dagoela, eta materiala Bosnia-Herzegovinara eramatea —premiarik handiena dutenengana helaraztea— oso-oso zaila dela. Materiala Splitera ekartzea da errazena. Splitera iritsi ondoren

Split laguntza humanitarioz betetako biltegi handia da. Materiala Splitera ekartzea baino askoz zailagoa da materiala premia dutenengana helaraztea.

hasten dira arazoak. Horregatik, estima handitan dute bolondresak Jean Duthu kamiolari ustari-tarraren ahalegina. 24 bidaiak egin ditu dagoeneko gerraren inguruetara Duthuk, eta 15 bider iritsi da Mostarrera. Laguntza humanitarioaren premia larria du gaur egun Mostarrek, baina arriskutsua da bertaraino joatea, benetako borondatea eskatzen du ahalegin suhar horrek.

Split zer den eta nola dagoen ikusi dugu gaur. Gerraren atariko biltegi handia, laguntza humanitarioaren hiri-burua. Laguntza humanitarioko material horrek dituen mila arazo eta ktramilaren berri ere izan dugu. Pixka bat frustrantea izan da eguna. Baina Jesus Mari eta Manuel lehengusuak izan di-

tugu afaltzen autobusean, eta haien solasak alaiago utzi digu barrena lotara sartu aurretik.

Laguntzeko prest

SOS Balkaneseko 9 bolondres ezagutu genituen Spliten egon ginen egunean. Horietako bik —gurekin joandako Fernandok eta lehendik zegoen Angelek— Spliteko alde zaharrean kokatutako bulegoan egiten dute lan batipat. Logistak dira, SOS Balkanesen lana koordinatzea da euren zeregina. Gainerako zazpiek TTTSko errefuxiatu eremuan egiten dute lan zuzenean, tailerrak antolatu eta zuzentzen, mantentzen lanetan, sortzen diren arazoak konpontzen...

Txandak eginez, eremuko atarian dagoen kanpin denda batean egiten dute lo gauero SOS Balkaneseko bi bolondresak, gauaz gerta daitekeen edozein emergentziari aurre egiteko. Kroaziako polizia errefuxiatu bat atxilotuz gero, kanpin dendan lo egin duten bolondresak atxilotuarekin joango dira, ea bera-ekin zer egiten duten ikusteko. Atzerri- tar bat aurrean izanik, kontu handiagoz ibiliko dira polizia, atzerriarrak gerta-


tutakoaren berri eman dezakeelako, besteak beste.

Batetik bestera ibiltzeko, Nisan Patrol bat eta bi furgoneta zahar dituzte SOS-ekoek, zama handiak mugitzeko ez daudenak. Beste ibilgailu baten premia larria zutenez, Tolosan bildutako 800.000 pezetekin furgoneta berri bat erosteko asmoa zuten. Bizi, berriz, batzuk bulegoan dagoen pisu txikian eta besteak Stobrec-en alokatutako etxe batean bizi dira, nahikoa pilaturik baina gehiegizko arazorik gabe. Stobreceko etxea oraintxe aurkitu berri dute. Lehen, zazpi lagunek egiten zuten lo, estu-estu, bulegoa dagoen pisu txikian.

Euskal herritarrak dira Spliten ezagutu ditugun 9 neska-mutil bolondresetatik 7. Beste biak, berriz, Andaluziakoak. Fernando eta Txus gurekin batera joan dira, eta gainerakoek bi edo hiruna hilabete egin dituzte dagoeneko Spliten. Batzuek laster itzultzeko asmoa dute eta beste batzuk, aldiz, urtarrilera edo apirilera arte geratzekoak dira. Eguberrietan 7 baino ez dira izango, eta datorren urtean ere izango da seguru asko bolondres berrien premia. Badu aukerarik, beraz, lagundu nahi duenak.

Tolosan bildutakoak bertaraino eraman ondoren, laguntza humanitориoko materialak banatzeak dituen zailtasunez jabetu ziren Nairobitarrak antolatutako bidaian parte hartu zutenak. Split laguntza humanitario ugariz betetako biltegi handia da gaur egun, eta ez da erraza laguntza guzti hori benetako premia duenari helaraztea.

LAUGARREN ATALA: Metkovic, Mostartik gertu



Maria Angeles Martinez Nairobitarra barruan, agiri bat idazten. J.L.Z.

Abenduak 9, osteguna

Asko aurreratu dugu gure lana gaur goizean. SOS Balkanesekoek janari faltan dagoen errefuxiatu eremu bat lo-

kalizatu dute, Spliten bertan, eta hara jo dugu gaur Nairobitarrarekin, janari pakete batzuk bertan banatzera. Hiria-
ren erdialdetik oso urruti ez dagoen hotel zahar batean 50etik gora familia bizi dira, nahiko egoera tristean, ikusi dugu-
nez. Bosniarrak ezezik, bizileku zuten Bosniatik ihes egindako familia kroaziar eta serbiarrak ere bizi dira hotel zahar eta zantar honetan. Arazorik edo istilurik gabe deskargatu ditugu, errefuxiatuen laguntzaz, Nairobitarraren maleteroan kokaturik zeuden janari pake-
teak. Horrenbestez, janari guztia ez bada ere asko behintzat banatua dugu dagoeneko, eta autobusa prest dago bihar Metkovic-era joateko, gainerako janari guztia —atzo Solingo eremura eraman eta atzera bueltan ekarri genuena— TTTS inguruko beste biltegi batean gordeta utzi baikenuen.

Beren esker ona agertu digute mila modutan hoteleko errefuxiatuek. Beren gelan kafea hartzera gonbidatu gaituzte emakume batzuek; gizonezko ba-

tzuk, berriz, Nairobitarren barrura igo eta beren hizkuntzan —serbo-kroaziera deitu ohi diogu hemendik kanpo baina hemen bosniarrek *bosniaski* deitzen diote, hots, bosniera— mintzatu zaizkigu. Ez dakigu zer esan diguten, baina ziur gaude esker oneko hitzak izan direla, eskua eman eta irribarre batez agurtu baikaituzte. Atzoko frustrazioaren ondoren, poz arrasto xume bat utzi digu barrenean gaurko banaketak, janaria toki egokian utzi dugula jakinik.

Kazetari lanetan ere aritu gara pixka bat kazetari gisa etorri garenok. Prentsaurreko antzeko zerbait izan dugu janari banaketa baino lehen: Bosniako Armijaren alde borrokan aritutako Oscar Gutierrez bilbotar gaztea agertu da, eta bere esperientziak kontatu dizkigu TTTS inguruko gure txokotik janaria banatu dugun hotelerako bidean. Harri eta zur utzi gaitu guztiok ezustean harrrapatu gaituen kasu bitxi honek.

Baina prentsaurreko horretako apunteak hartzeaz gain, nor geure komunikabidearekin kontaktuan ere jarri gara: Antton eta Carolina SOS Balkaneseko bulegoan izan dira, Euskadi Irratirako eta Donostiako Herri Irratirako hizketan hurrenez hurren. Anttonek 'Egin-erako', Juanmak eta Beak 'El Diario Vasco-rako', Jon Anderrek 'Galtzaundi-rako' eta nik EGUNKARIArako artikulu

bana idatzi eta faxez igorri dugu arratsaldean, Spliteko postatik.

Faxa igorri ondoren, turistarena egiteko beste aukera txiki bat izan dugu iluntzean, autobusean afaltzera itzuli baino lehen. Gerra arrasto handiegirik ez da antzematen Spliteko parte zaharrean paseo bat eginez gero. Hori bai, HVko soldado kroaziar ugari ikusten da bazterretan, eta tarteka praktiketakoak bide diren tiro gutxi batzuk aditzen dira, baina gainerakoan ez dago batere arazorik hiriko alde zahar historiko eta dotoreaz disfrutatzeko. Lotsa pixka bat ere ematen du, gerra batera edo gerra baten ingurura etorri garela jakinda, baina halaxe da: opariak erosteko aukera.

Irinez zamatuta ekarri zuen kamioia hartu eta Nafarroa aldera jo du Jesus Marik, Anconarako ferrya hartuta. Bere lehengusu Manuelek, aldiz, gurekin geratzea erabaki du. Bere kantuekin gaua alaitu digu Nairobitarra barruan.

Abenduak 10, ostirala

Kroaziako Gurutze Gorriak TTTS gerraio zentroan duen biltegi batean deskargatu dute goizean furgonetetan eta Land Roverrean zuten kargamendua Nuevas Juventudesekeok. Uste zuten baino abentura konplikatua izan dute Spliten, eta azkenean materiala

okerreko eskuetan utzi ote duteneko susmoarekin itzuli beharko dute, gainera, Madrilerera.

Guk, berriz, atzo autobusa hustu genuenez, Metkovicera jo dugu gaur, Tolosa eta inguruetan bildutako 200 kilo botika Médicos del Mundokoen eskuetan uztera. SOS Balkanesekoek euren biltegian zuten hainbat kirofano-material ere sartu genuen atzo beheko materialeroan eta material hori ere eraman dugu Metkovicera.

Polizia zein militar kroaziarrez hornitutako bi kontrol aurkitu ditugu Splitetik Metkovicera bidean. Ez da harritzekoa, Metkovic gaur egun borroka gogorren gune den Mostartik 57 kilometrotara baino ez baitago, Bosnia-Herzegovinako mugatik oso gertu. Ez dugu arazorik izan. Paperak erakutsi eta pixka bat begiratu ondoren pasatzen utzi digute.

Médicos del Mundoko logista den Maria Angeles Martinez izan da gure kontaktua Metkovicen. Karga hustu behar deneko biltegiara gidatu gaitu. Laguntza humanitarioko txaplata zuten kamioi ugari zegoen biltegiaren atarian. Gerra hurbil zegoela sentiarazten zuen haiek ikusteak.

Botikak, mantak eta geratzen zitzaigun material guztia deskargatu ondoren, kazetariz jantzi berriro eta galdera mor-

doa egin diogu Maria Angeles Martinezi. Grabagailuak aurrean jarrita ere, argitasun handiz erantzun digu.

Autobusa deskargaturik, gure zeregin nagusia bukatutzat emateko moduan geunden ilundu baino lehen. Metkovicetik Spliterako bideari ekin eta bidean gelditu eta gaua pasatzeko toki egoki baten bila aritu gara. Azkenik, errepide nagusitik irten, herrixka txiki batera jaitsi eta harri koxkorrez osatutako hondartza txiki baten ondoan aparkatu du Angelek Naiorbitarra, Adriatikoaren aurrean. Manuelek prestatu du afaria autobuseko sukaldean. Txiste kontaketan jardun dugu afalostean eta lehortzeraino egin dugu barre. Eskerrak behintzat gure artean ondo moldatzen garen eta giro ona daukagun!

Kamioiak amets

Mostarko eritetxean aritzen diren medikuen egoera ezin ilunagoaren berri eman zigun, besteak beste, Maria Angeles Martinezek, Metkovicen, abenduaren 10ean. "Soto ilun batean egin behar izaten dute lan etengabe, egunaren argirik ikusi gabe, eta horrek morala lur jota uzten die".

Logista den aldetik, Kroazian pilatutako laguntza humanitarioa Bosnia-Herzegovinan sartzeko aukera izatea da Maria Angelesen ardura nagusietako bat. "Ka-

mioi batekin egiten dut amets”, aitortu zигun bat-batean horretarako zer beharko lukeen galdetu genionean. “Jakina, janaria, botikak eta arropak jasotzen jarraitu nahi genuke, baina une honetan kamioien premia dugu beste ezeren gainetik, daukagun materiala Bosnia-Herzegovinara eramateko”. Espainiako kasko urdinen baimena izanez gero, Médicos del Mundokoek ez dute arazorik muga zeharkatzeko, baina une honetan behintzat kamioi falta dute horretarako, UNHCR ez baitago bere konboietan erakunde ez gubernamentalen materialak eramatera behartua eta ez baitu horretarako borondaterik erakusten.

Nolanahi ere, joan den astean —abenduaren 13tik 20ra bitartekoan, alegia— Jablanicaraino joango zen konboi bat martxan jartzeko asmoa zuten Médicos del Mundokoek, erakunde honek Frantzia duen saileko kideekin elkarlanean. Sei kamioik osatu behar zuten konboi horrek oso garrantzi handia zuen Maria Angelesentzat. Dena den, ez zuen ahazten Jablanicaraino iristea oso zaila dela, neguan batipat, errepi-

dea txarra delako eta elurrak zailtasunak areagotu egin litzakeelako. Lerro hauek idazten ari naizen unean ez dakit konboi hura Jablanicara iritsi zen, ezta Metkovicetik irten zen ere.

”Sarajevon baino okerragoa da egoera Mostar, Jablanica eta beste hainbat lekutan”, Maria Angelesek azaldu zigunez. “Sarajevo Bosniako hiriburua da, handia da eta sinbolo bihurtu da, baina Mostar, Jablanica eta beste hainbat tokitara laguntza gutxiago iristen da, ahaztuago daudelako”.

Xk esango lukeen bezala “morboa elikatze” egokia den kasu lazgarri bat ere kontatu zigun Maria Angeles Martinezek: buruan bala bat sartua zuen 9 urteko haur bosniar bat salbatzen ahalegintzeko aukera bakarra kroaziarrei trukean bi preso entregatzea zen; agintari militar bosniarrak trukea ez egitea erabaki zuen eta umea hil egin zen. Saiatuta ere zaila izango zen, Maria Angelesen iritziz, ume hura salbatzea, baina hala ere berak bere haserrea agertu zion trukea eragotzi zuen agintari bosniarrari.

Botikak Médicos del Mundo erakundekoek Metkovic-en duten biltegi batean utzi ondoren, abenduaren 10ean amaitu zuen Nairobotarrak Tolosa eta inguruetan bildutako laguntza materialaren banaketa Kroazian. Metkovicetik Splitera itzultzen ari zirela, itsasertzeko herri txiki batean geratu ziren Nairobotarrakoak, gaua lasai pasatzeko asmotan.

BOSTGARREN ATALA: Agur, Kroazia samina

Abenduak 11, larunbata

Lo lasai egiteko asmoa baguen ere, ez da guk uste bezain lasaia izan gaua. Goizeko 2.30ak inguruan kamioi handi batzuk sentitu ditugu Nairobotarraren ondoan aparkatzen. Ilunpean zaila zen militarrek ote ziren ala ez jakitea, baina halako batean ikusi dugu behintzat laguntza humanitarioko kamioi alemanak zirela eta lasaitu gara pixka bat.

Kamioilari alemanek nolanaahi aparkatu dutenez, herri barruko bidexka moztuta utzi dute, eta pasatu ezinik geratu den furgoneta bat hondartzatik pasatzen ahalegindu eta trabatuta geratu da goizeko 4.00ak inguruan. Furgonetatik jaitsi eta ibilgailua martxan jartzen gorrriak ikusi dituzte furgonetakoek. Ez gaituzte bultzatuta egitera deitu baina edonor esnarazteko lain izan dira furgonetak harri tartetik irteteko ahaleginean atera dituen zaratak. Ez da, beraz, uste genuen bezain lasaia izan gaua.

Goizean ondo ikusi ahal izan ditugu kamioi alemanak. Bederatzi ziren, trailer

handiak batzuk, kamioi txikiagoak besteak, eta Maltako Gurutzearen sinboloak zituzten itsatsiak. Ez diote inori barkamenik eskatu txofer alemanek, eta eurak martxan jarri ez diren bitartean guk ere ez dugu irteterik izan. Eskerrak ezertarako presa berezirik ez genuen, jai ederra genuen bestela!

Manuel herrian zehar bueltaska bat egitera joan eta emakume batekin hasi omen da berriketan. Sarajevokoa dela esan dio emakumeak, eta errefuxiatuta bizi dela herrian. Etxera gonbidatu du emakumeak Manuel. Nafarra harrituta geratu da etxea handia eta dotorea zela ikusi duenean, baina emakumeak berehala argitu dio ezetz, etxea ez dela berea, gela bat baino ez duela han beretzat.

Emakumearen etxean kafea hartzen ari zirela, telefonoz deitu omen diote eta, bestaldetik ziotena entzutean, emakumea negarrez hasi da. Sarajevotik izan da deia, Manuelek ulertu ahal izan duenez. Atzo ere Bosniako

hiriburuan beste zortzi pertsona hil zituztela esan diote emakumeari.

Herri txiki honetan ere errefuxiatu asko bizi dela konturatu gara pixkanaka-pixkanaka. Ederki azaldu du Manuelek herri honetan ikusitakoak eragin digun zirrara: "Herrietatik pasatu eta badirudi ez dela ezer gertatzen, baina gero barruan sartu eta herri bakoitza poema bat da".

Kamiolari alemanen atzetik, geu ere goizeko 10.00ak pasata jarri gara martxan. Herritik irtetean, herriaren izena begiratu dugu kartelean, atzo sartzera-koan inork ez baitzuen gogoan hartu: Zaostrog. Toki ederra, inoiz lasaiago ibiltzeko aukerarekin itzultzerik badugu.

Splitera iritsi baino lehen zegoen beste herri txiki batean geratu gara bazkalteko, Omisen. Lehendabiziko aldiz, Nairobitarran bazkaldu beharrean jattetxe batean bazkaldu dugu. Letxuga hosto batzuk eta haragi gozo bat pata-ta frijituekin.

Arratsaldean, TTTSra itzuli eta hantxe egon gara, gauza handirik egin gabe, berriketan eta argazkiak ateratzen. Fermandok esan digunez, guk biltegian utzitako janari pakete batzuk banatu dituzte eguerdian, Nisanarekin, beste errefuxiatu eremu batean, eta bihar gehiago banatzeko asmoa ere ba omen dute. Atsedean hartzeko moduan

gara. Egin beharrekoa egina dugu, eta bihar iluntzean bidaia neketsu bati ekin beharko diogu, Euskal Herrira itzuliko gaituen bidaia luzea.

Abenduak 12, igandea

Etxe atarian bertan sekulako ikuskaria izan dugu goizean goizetik: 140 kamioik osatutako konboi handia genuen Nairobitarraren ondoan. 'Bijeli put za Nova Bila' ('Nova Bilarako bidaia zuria') da Splitetik Bosniako zenbait hiri-



ARMAK KONBOI KATOLIKOAN. Argazkian, abenduaren 12an Splitetik irten zen 'Bijeli put za Nova Bila' konboiko kamioietako bat. 'Bidaia zuria' izena zuen arren, Armijako begiraleek 5.000 detonagailu eta 10.000 fusible lehergailudun aurkitu zituzten joan den astelehenean, abenduak 20, Kroaziako Karitasek eta frantziskotarrek Bosnia erdialdera bidaratutako konboi honetako kamioi batean. J.L.Z.

tara doan konboi handi honen izena. Batari eta besteari galdetuta, zerbait jakin dugu konboi honi buruz, baina ez asko. aure ingelesak ez duelako la-

guntza handirik ematen batetik, eta gure informatzaileek ere gauzak oso argi ez dauzkatelako bestetik.

Karitasak eta frantziskotarrek antolatutako konboia omen da, bosniarrez inguratutako kroaziarrei laguntza ematera doana. Dena den, beste batzuek diotenez, premia duten bosniarrei ere emango omen diete laguntza. Toki zabal eta lasaia denez, TTTS aukeratu dute irteerarako, eta Nairobiarratik 20 metro eskasera egin dute konboia bedeinkatzeko meza.

Meza amaitu denean, konboia aurki irteengo zela uste izan dugu baina ez, arratsaldeko 17.00ak arte ez dira mugitu kamioiak.

Bitartean, Fernando, Angel eta Toñirekin batera, beste errefuxiatu eremu batean izan gara Antton, Bea eta hirurok, janari pakete gehiago banatzen, SOS Balkanesekoek 'Martxelina' deitzen duten DKW furgoneta zaharrarekin. Barbara Bushek Splitera etorri eta, besteak beste, TTTSko errefuxiatu eremua bisitatzeko asmoa omen du, Angelek bidean esan digunez. "Tomateak eta arrautzak bidal itzazue, botako dizkiogu eta", komentatu digu Toñik.

Hemen ere, herenegungo eremuan bezala, arazorik gabe egin dugu janari banaketa. Eremuko arduradunak familia guztien zerrenda zuen eta familia

bakoitzari bere paketea ematen ziztzaion. Emakumeak ziren paketeak hartu eta etxera eramaten zituztenak; gizonezko batzuk ere baziren inguruan, baina begiratu besterik ez zuten egiten. Paketeen inguruan jende gehiegi zegoela iruditu zait eta pixka bat urrundu naiz furgonetatik. Nire ondotik pasatzean besotik heldu eta "Dobro, dobro" ("Ondo, ondo") esan dit gizon batek, bere esker ona agertuz. Nola esan nik ez dudala ezer egin? Nola esan ni ez naizela inor esker on hori jasotzeko, Tolosako herriari dago-kiola esker hori jasotzea? Nola adierazi bere esker onak sentiarazi didan zirra- ra berezia? Ezin ezer esan, irribarre txiki bat egitea izan da nire aukera bakarra. Eta orain, lerro hauen bidez, gizon haren —eta beste gizon eta emakume askoren— esker ona transmititzea euren laguntza eskaini dutenei.

Iluntzean Kroazia samin eta anker honi eta bertan egin ditugun adiskideei agur esateko ordua etorri da. Nairobiarrakok ere banatu egin gara: batzuk Rijekaraino ferryan joango dira eta beste batzuk, aldiz, lineako autobusean joatekoak gara. Splitetik Rijekarako errepidea Krajina eskualdetik pasatzen da, Sibeni eta Zadar hirietatik, eta hiri horietan serbiarrek kroaziarrei eraso egiten jarraitzen dute. Bidea ezagutu gabe, Nairobiarrarekin handik pasatzea arrisku-

tsua izan liteke. Gutxi batzuk lineako autobusean joatea, aldiz, ez zaigu arriskutsua izango denik iruditzen.

Bilbotar bat Bosniako Armijan

Kroazian ezagutu genuen pertsonaia bitxienetako bat, dudarik gabe, Oscar Gutierrez izan zen: islamista bihurtu eta Bosniako Armadako —Armija— kide izandako 21 urteko intsumiso bilbotarra.

Urte hasieran SOS Balkaneseko bolondres gisa joan zen Oscar Jugoslavia ohira, baina aurki utzi zuen erakunde hau, bere kasa ibiltzeko. Mostarren lehen bonbardaketak hasi zirenean, maiatzean, Mostarren zegoen, eta morteroek bera bizi zen etxea suntsitu zuten. “Lehen egunak izututa pasatu nituen, baina gero borrokan parte hartzea erabaki nuen”, kontatu zigun. Hiru hilabete egin zituen Armijako milizianoekin batera erresistentzia borrokan, eta han bosniarrek gerrarako zein prestakuntza eskasa eta zein armamentu ahula duten egiaztatu zuen (in situ).

Oscarren neskalaguna —mostartarra— hiriaren bestaldean geratu zen lehen bonbardaketen ondoren. Frontetik irten zenean —hiru egun arriskutsu mendiz ihesean—, neskalaguna Frankforten erbesteratua bizi zela jakin zuen Oscarrek, eta hara joan zen harekin biltzera. Gero Bilbora itzuli zen, gurasoen etxera. Guk ezagutu genuenean, abenduaren 9an, Kroaziara itzulia zen, berriro ere Bosnian sartzeko asmotan. Abenduaren 11n Medjugorje-ra joatekoa zen, muga pasatzeko pape-rak egitera.

Mostarrera iritsiz gero bertan entregatzeko gutun mordoska bat zeraman aldean Oscarrek, Meho Kodro Real Sociedad futbol taldeko jokalaria mostartarrak utziak horietako batzuk, berak kontatu zigunez.

Badakit Oscarren kasua sinesteak lanak ematen dituela, baina berak esan ziguna kontatu dut hemen. Bitxia benetan!

Bertan zuten zeregina amaiturik, abenduaren 12an ekin zioten itzulerako bideari Nairobitarra autobusak laguntza humanitarioa banatu asmoz Kroaziara egindako bidaiari parte hartu zutenek. Batzuek ferryan eta beste batzuek lineako autobusean egin zuten Splitetik Rijekarainoko bidea, gero azken hiri honetako kaian elkartzeko asmotan.

SEIGARREN ETA AZKEN ATALA: Gogo jardunak autobus batean

Abenduak 13, astelehena

Ez zaigu ezer gertatu. Bizirik iritsi gara Rijekara. Ikusi ere ez dugu gauza handirik ikusi, egia esan, gauez izan baita bidaiari osoa, gaueko 9.00etatik goizeko 5.45era arte gutxi gora-behera. HVko soldadu kroaziar ugari igo zen gurekin batera bart Spliten. Autobusa hartu baino lehen, gerritik zintzilik matxete handi bat zuen bati begira egon ginen, zelako Rambo itxura nazkagarria zuen komentatuz. Bidaiari zehar, ezer ez zegoen toki ilunetan gelditu dira soldaduak, txoferrari abisua emateko oihu bat bota ondoren (badirudi Kroazian ez dutela oraindik geldialdia eskatzeko txirrina asmatu); hor izango dituzte nonbait kanpamenduak. Sibeniketik pasatzerakoan, berriz, dena batzuen aurrean lurrez betetako zakuak ikusi ditugu, babes gisa jarriak, antza. Zada-
rren zubiaren ordezko pasabidean zirrara berezia sentitu dugu autobusa ar-

giak itzalita zituela pasatu denean. Handik aurrera, arriskurik izan zezakeen zona atzean utzirik, lasai egin dugu lo, gure gorputzak aulkietan ahal bezala egokituta.

Goizeko 6.00etan kafetxo bana hartu, hirian zehar buelta bat egin eta gainerako bidaiakideen zain geratu gara. Arazorik gabe iritsi dira, eta Kroaziatik irteko bideari ekin diogu denok Nairobitarra barruan.

Kroaziatik Esloveniara arazorik gabe sartu gara. Esloveniatik Italiara pasatzerakoan, karabinero bat igo zaigu lehendabizi autobusera. Kazetariak ga-

Aldez aurretik ere pentsatzekoa zenez, galderak ekarri ditugu erantzunak baino ugariago Kroazia saminera egin dugun bidaiari laburretik

rela esan dio Josuk, paperak erakutsiz. ("Giornalisti della sinistra, eh?"), esan du guri begira. Gero, berriz, mugetako

bi zaindari igo dira eta ea katolikoak garen galdetu digute... Bi zaindari hauek aulki azpiko kaxoietakako trasteak erakusteko eskatu digute. Nik uste dut aspertuta zeudela eta gure bizkarretik barre pixka bat egitea besterik ez zute-
la nahi. Muturreko bana emateko gogoari eutsi eta isilik egon behar, beste askotan bezala. Ez du luze iraun miaketa informalak eta aurki ginen Italia barruan. Muga pasatu eta Marseillatik gertu egin dugu lo, autobusa geldituta.

Abenduak 14, asteartea

Frantzia osoa zeharkatu dugu. Autobusa martxan zela, TTTSko errefuxiatuei erositako (patuko)-en banaketa egin dugu. Ez dute diru sarrera handirik izan gurekin, baina ondo etorriko zitzaizen material berria erosi eta lanean jarrai-



Ez dute etorkizun erraza Kroazian errefuxialutako haur bosniarrek.

tzeko. Bestalde, politak ere badira patukoak, nahiz eta gu, egia esan —ni behintzat— etxeko zapatilekin ohituegiak egon orain patukoak jazten haste-
ko. Dena den, oparitarako ez zaizkigu gaizki geratuko.

Ez du kontatzeko moduko beste ezer izan bidaiak, Josuren gidaritzapean Midiko kanalari egindako bisita ez bada. Saint Gaudensen azken hondarrak jan ditugu bazkaltzeko, eta 20.00etarako Tolosara iritsia zen Nairobitarra.

Patukoen banaketa egiteko ezezik irakurtzeko eta berriketarako ere aprobe-
txatu dugu bidaia. Baita ikusi eta bizi ditugunei buruz gogoeta egiteko ere. Galdera asko etorri zaigu burura, era guztietakoak. Zer egingo du Oscar Gutierrezek, zein abentura erotan sartuko du bere suhartasunak? Iritsiko ote da Médicos del Mundokoek Jablanicara bidaltzeko asmoa duten konboia? Lortuko al ditu bere ametsetako kamioiak Maria Angeles Martinezek? Ikasi al dugu ezer Kroazian egindako aldi honetan? Balio izango al du ezertarako gure kazetari lanak ala "morboa elikatu" baino ez dugu egingo, Xk zioen moduan? Zer etorkizun dute TTTSko eremuan ezagutu ditugun haurrek? Zer etorkizun du herri bosniarrek? Zenbat jende hilko da negu honetan Bosnia-Herzegovinan? Noiz arte iraungo du

gerrak? Ba al du aukerarik batere ba-keak? Eta bakea eta gero ere, noizko sendatu zauriak, noizko baretu gorrotoaren oldarra? Zer egiten ari gara? Zer egin dezakegu? Zer egin behar dugu? Ez ote da lehertzeaz dagoela dioten Kosovo izango serbiarren basakeria odolgozaren hurrengo lekukoa, gizakiak duen gerra premia eroaren hurrengo agertokia? Ez ote daiteke beste edozein tokitan piztu noiznahi gerra, ezustean, Jugoslavia ohian piztu zen bezala? Seguru al gaude gauden tokian? Eta beste asko eta asko. Aldez aurretik ere pentsatzekoa zenez, galderak ekarri ditugu erantzunak baino ugariago Kroazia saminera egin dugun bidaia laburretik.

Gizaki izatetik dimititu

Ez dago zintzo eta gaiztoen arteko banaketa manikeoa egiterik, baina joan ginenean baino garbiago daukagu, Kroazian izan eta gero, Jugoslavia ohiko gerran serbiar eta kroaziarrek izan direla erasotzaileak eta bosniarrei egokitu zaiela biktimaren rol mingarria. Lehen baino garbiago daukagu garbiketa etnikoa izan dela serbiar eta kroaziarren xedea. Maria Angeles Martinezek garbi utzi zigon, berarekin Metkovicen izan genuen solasaldian, zibilak izan direla asko eta askotan serbiar eta kro-

aziarren erasoan helburu zuzena, emakumeak eta, bereziki, haurrak batere begiramenik gabe eraso eta hil ditzutela Bosnia-Herzegovinan.

Maria Angeles Martinezen ustez, ez da izan herria, agintari politikoen jokabidea baizik, etnien arteko ezinikusia eta borroka hori piztu duena, etnien arteko elkarbizitzaren armonia birrindu duena. Sarajevon bezala, Bosnia-Herzegovinako beste leku askotan ere elkarren artean ahaidetuak eta bakean bizi ziren serbiar, kroaziar eta bosniarrak, harik eta Slobodan Milosevicek Serbia Handiaren ideia eroa plazaratu eta bultzatu zuen arte.

Kroaziako eliza katolikoaren jokabidea ere ez da oso zuzena, Angeles Martinezek azaldu zigunez: (ustaxi) kroaziarren aldeko adierazpenak egin ohi ditzute, behin baino gehiagotan ikusi ditu apez kroaziar armatuak eta Karitasek katolikoei baino ez omen die ematen laguntza humanitarioa.

Joan ginenean baino garbiago daukagu —edonork esango dizu Kroazian— Europa eta EEBBek euren eskuetan izan dutela gerra erroetik moztea, eta euren axolagabekeria lotsagabeak hiltzaileen konplize bihurtu dituela. “Gure belaunaldiarentzat behintzat erabat galdua du sinesgarritasuna NBEK”, komentatu zigon behin Xk, Stobrecen

6 EDIZIOA ERREPORTAIA

bertan, TTTStik oso gertu, Kroaziako Gobernuaren baimenik ez zuelako zazpi hilabetez geldirik egon zen 80 kamioiko konboi bosniarraren kasua gogoratuz: “Bosnia-Herzegovinara joateko baimena izan zutenean, kasko urdinen babesik gabe joan behar izan zuten kamioilari bosniarrek. Guk eta beste askok konboiari babesa emateko eskatu genien arren, kamioiak Bosnia-Herzegovinan sartzea heriotza seguru ba-

terako bidea zela argudiatu zuten Unproforekoek. Azkenean, babesik gabe irten eta beren jomugaraino iritsi ziren kamioilari bosniarrak, kasko urdinak lotsa-lotsa eginda utziz”.

NBErekiko fedea galtzetik urrunago doa, ordea, Xren haserrea: Kroazian ikusi dituenak ikusita, “gizaki izatetik dimititzeko gogoia” sentitzen duela aitortu zigun. Zer gehiago esan daiteke?